

Donostian, 1994ko uztailaren 22an

Haritschelhar, J.
 Lekuona, J.M.
 Knörr, E.
 Arana, J.A.
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, M.
 Diharce, X.
 Irigoyen, A.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Ondarra, P.
 Oyharçabal, B.
 Salaburu, P.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariordea
 Zearreta, J.J., ekonomi eragilea

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1994ko uztailaren 22an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia, aldameneko lagunak bertan zirela. J.L. Davantek eta Tx. Peillenek ezin etorria adierazi dute.

Agiria

Ekaineko agiria onartu da, zenbait zuzehketa egin ondoan.

Gaietan sartu aitzin, B. Oyharçabal Centre National de la Recherche Scientifique-ko *Directeur de Recherches* izendatu berri dela adierazi du euskaltzainburuak. Bilduen zorionagurra jaso du Oyharçabal jaunak.

Jon Bilbao zenaren hilberri-txostena

J.A. Aranak irakurri dur Jon Bilbao euskaltzain ohorezkoari buruzko bere txostena. Bilbao jaunaren bizitzaren xehe-tasunak eman ondoren, haren lana goraiatu du, oroz gain *Eusko Bibliographia* izenekoa, 1970az gero argitaratzen hasia, Amaieran, E. Knörr eta F. Krutwig-ek zenbait iruzkin egin dituzte.

Barne Erregelak

Uztaileko batzarrean banaturiko atalaz, *Onarpen mailak eta prozedura* deritzanaz, X. Kintanak igorri ditu oharrak ezarritako epe barruan. 2.2. puntuari dagokiola, urgazleei esku gehiago ematearen alde ageri da, gaiaren arabera. J.L. Lizundiaren ustez, nahiz urgazle guztiei erabakizunen testuak ezin dakizkiekeen bidal, ohargile direnei edo ohargile izatea eskatu dutenei igorri ahal zaie aurre-rantzean. P. Altunarentzat, berriz, urgazleek berek beharko lukete interesa azaldu. J. Haritschelharrek gogorarazi du aurreko batean 150 gutun hartzaileetarik 11k bakarrik erantzun zutela. A. Irigoyenen iritziz, gai guztiek ez dute garrantzi bera eta aldian aldiko jokabidea har liteke. Geroko utzi da arazo hau.

2.3. puntuaz denaz bezain batean, Kintana jaunak epe lasaiagoak eskatzen ditu. J. Haritschelharrek oroitarazi du edozein euskaltzainek duela gaia hurrengo batzarrerara arte mahai gainean utz dadin eskatzeko eskubidea.

3.3. puntuan, *argitarapen* hitza erabiltzea eskatzen du X. Kintanak. M. Azkaratek erantzun dio Euskaltzaindiak *argitalpen* forma hobetsi zuela iazko uztaillean, Paben egindako batzarrean. Nolanahi ere den, auzi hau eta bestelakoak, idazketa ukitzen dutenak, testu guztiak onartuko direnean aztertuko dira.

Hortaz, Zuzendaritzaren erregela proposamena onartutzat eman da.

Hitanoko aditz trinkoa

Egungo gaia ikertzen hasi baino lehen, Euskara Batuko batzordekide den P. Salaburuk maiatzeko batzarrean onaturiko testuan, *batik bat* esapideari dagokio-la, pasarte bat aldatzea eskatu du. Aurreko testua behar bezain argi ez zela eta, aho batez onartu da idazketa berria.

B. Oyharçabalek *Adizkera trinko alokutiboak: ergatiborik gabeko formak* eta *Adizkera trinko alokutiboak: forma ergatibodunak* izeneko txostena aurkeztu du, Euskara Batuko batzordearen izenean. Lehen erabakitako formak, Miarrizekoan erabakizun gelditu zirenak eta beste batzuk biltzen ditu txosten horrek. Bestetan bezala, hiru zutabetan ageri dira formak: ez alokutiboa, alokutibo maskulinoa eta alokutibo femeninoa.

X. Kintanak proposamenarekin bat datorrela esan du. Hala ere, *za-* eta *ze-* (*zagok / zegok* eta beste), bi-biak zilegi izatea eskatu du. Gainera, erregulartasunari eutsi beharko litzaioke, haren ustez, paradigma hauetan, eta kontraesanak saihestu. A. Irigoyenek esan du *zegok* eta antzekoak jarriz gero ez dituela txartzat hartuko paradigmak. Hala ere, uste du *niagok*, *diagok* eta horrelakoek ere agertu beharko luketela, baina jartzen ez badira bere oharra agirian azal dadin nahi duela. Bestalde, bizkaieraz *ñatorna* eta antzekoak erabiltzen direla esan du, baina *na-torren* eta abarrekoak ere ontzat hartzen dituela.

Ikusi aditzaren kasuan, bestetan bezala *za-* / *zekusaat* onartu dira. Orobat *entzun* aditzarenean: *za-* / *zentzuat*.

P. Charritonen galderari erantzunez, batzordea forma berririk asmatzen ari denentz, P. Altunak esan du dozenaka formak direla inon ageri ez direnak. Batzordeak paradigmak osatzen ihardun du, Aditz batzordeak egin zuen bezala. A. Irigoyenen aburuz, aski litzateke *e.a.* ezartzea. J.L. Lizundiak aditzera eman du horrelakoetan *antzeko* edo jartzen dela, baina ez *e.a.*

Oharrak irailaren zortzia baino lehen bidaliko dira Bilboko egoitzara, atalka, ahal dela: kontraesanak; jotzean gertatu diren hutsak; hutsuneak.

X. Kintanak *ni naiz* eta *hi haiz* irakasteko prozeduraz azken bilkuran egin eskaria berritu du. P. Altunak ez du aipamen hori beharrezkoa ikusten. B. Oyharçabalelen ustez, egia da hitanoa ez dela irakasten eta zerbait egin beharko litzateke. M. Azkaraterentzat horrelako gomendioek eta zuzentasunaz esan litezkeenek ez dute txosten honetan tokirik. J.L. Lizundiari ez zaio iruditzen Euskaltzaindia aplikazioa garatzeko Erakundea denik. A. Irigoyenek esan du hitanoa atzera doala eta askatasuna behar dela eman.

Diruzaintza

J.A. Arana Euskaltzaindiaren 1995eko aurrekontuaz mintzatu da. Hizkuntz Politikarako idazkari nagusiak gutun batean eskatu du aurrekontua uztailaren 31a baino lehen aurkeztea, baina guztiz zaila da eskaria betetzea. Batetik, Euskaltzaindiak ez daki oraindik datorren urtean zenbat diru beharko duen. Bestetik,

epea estua da eta, gainera, langileen oporraldiagatik nekeza da dokumentazioa behar bezala prestatzea. Bi galde egin zaie euskaltzainei: 1. Irailerako utzi mintzatzea? 2. Uztailaren 31a baino lehen aurkeztuko dira aurrekontuak ala urrirako utzi hau ere?

E. Knörr-en iritiz, Herri Aginteekin irailan beharko litzateke hitz egin, ezen epe kontuan ez baita zorrotz ibiltzerik. P. Charrittonek esan du Zuzendaritzak erabaki behar duela komenien dena. J. Haritschelharren ustez, behin-behineko aurrekontua beharko litzateke orain aurkeztu eta behin-betikoa irailan. Ildo beretik, P. Salaburuk esan du Administrazioak bere epeak dituela; egin liteke orain aurrekontu bat, nahiz irailan aurkeztuko dena desberdina izan.

Heldu den astean agintariekin mintzatzea eta behin-behineko aurrekontua aurkezte erabaki da.

J. Haritschelharrek aditzera eman du Herri Kontuen Euskal Epaitegiak laster emango duela Euskaltzaindiaz azken hilabetetotan ondu duen txostena.

Eskuartekoak eta azken ordukoak

Espainiako Kultur Ministerioak Euskaltzaindiaren ordezkari bana eskatu du urteoroko Nazio Sariak izenekoak erabakiko dituen epaimahaietarako. Literatur batzordearen proposamena ontzat harturik, hauxe izan da batzarreak birretsi duena:

Letretako Nazio Saria: J.M. Satrustegi.

Poesia: Karlos Otegi.

Narrazioa: Ana Toledo.

Saiakera: Jon Kortazar.

Antzerki Literatura: Luis Haranburu Altuna.

Haur eta Gazte Literatura: X. Etxaniz.

Itzulpena: Josu Zabaleta.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakaria den Jon Esnalek gutunez galde-tu du zein den hobetsi behar den forma: *batzar*, *batzarra* ala *batzarre*. E. Knörren aburuz, Hiztegi Batuko batzordeak behar du auzia ikertu. A. Irigoyenek esan du *batzar* dela tradizio gehien duen aldakia. J.M. Satrustegik aditzera eman du *batzar* erabiltzen zela Euskaltzaindiaren agerietan, eta gero *batzarre*, ustez hau zela gomendatzeko era. P. Salaburuk esan du Baztanen *batzarre* esaten dela, nahiz ibarraren eguna *Baztandarren Biltzarra* deitu. J.L. Lizundiak Bizkaiko Batzarre Nagusietako euskarazko zenbait testu ekarri ditu, joan den mendekoak; horietan *batzar* eta *batzaar* erabiltzen da. Hiztegi Batuko batzordera pasako da gaia.

P. Charrittonek eskatu du Euskaltzaindiak *Biarritz* eta *Miarritze* formen artean bat hobestea. J.L. Lizundiak erantzun du atzo bildu zela Andoianen Onomastika batzordea eta, nahiz biak zilegi izan, *Biarritz* hobestea erabaki zuela goiko erabilerarako eta udazkenean erabateko proposamena egingo duela.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria